

## **BIDEGI S.A.ri**

### **BALIOGABETU DITUZTEN 7/2016 ETA 6/2018 FORU ARAUEN BIDEZ KOB RATUTAKO DIRU KOPURUEN ITZULTZEA**

..... jaunak, adin nagusikoak, .....ko bizilagunak eta nortasun agiri ..... zenbakia duenak, zera adierazten du:

I.- ..... matrikula zenbakia duen ibilgailuaren jabea naizela

II.- 2021eko otsailaren 18an 227/2021 epaia eman duela Auzitegi Goreneko administrazioarekiko auzien salak (bigarren sekzioa); atzera bota dituela Batzar Nagusiek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak jarritako 4191/2018 kasazio-errekurtsoak eta, beraz, 7/2016 for araua bertan behera utzi. Epaia horretan, adierazten da berretsi egiten zela Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien salak Gipuzkoan A15 eta N1 autobidearen tarte jakin batzuk erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasaren araudiari buruz emandako kontrako epaia, hau da, bidesarien araudia deuseztatzen zuen epaia berretsi zuen Gorenak.

III.- Auzitegi Gorenak, 2021eko maiatzaren 13an, ez duela onartu Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren maiatzaren 5eko 100/2020 Epaiaaren aurka aurkeztutako kasazio-errekurtsoa. Epaia horretan, EAEko auzitegi nagusiak baliogabetu egin zuen azaroaren 12ko 6/2018 Foru Araua, hain juxtu 2019ko maiatzaren 14tik aurrera aipatutako bideetako kanonen kobrantza arautzen zuena.

IV.- Bi arau horiek baliogabetu direnez, BIDEGI, S.A.k itzuli egin behar ditu arauak martxan egon diren tartean tasa horiengatik kobratutako zenbatekoak, eta, horretarako, egiten da erreklamazio-eskaera hau.

Niri dagokidanez, BIDEGI, S.A.k itzuli beharreko diru-kopurua ..... eurokoa da, eskaerarekin batera atxiki den eranskinean ageri denez.

Horregatik guztiagatik, honako hau eskatzen dut, behin abenduaren 15eko 7/2016 Foru Araua eta azaroaren 12ko 6/2018a deusezak izanda, Zuzenbidearekin bat egin gabe kobratutako dirua itzultzeko erreklamazio idazki hau aurkeztutzat jo dezazula, ontzat hartu, eta, horrenbestez, BIDEGI, S.A.k erreklamaziogileari ..... euroko zenbatekoa itzuli diezaiola, gehi dagozkion legezko interesak.

.....n, 2021eko .....ren .....n.

Sinatua:

